

Bertsolaritza eskola ordutan Lautadako Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietan

Bertsozale Elkarteko irakaslea, Oihane Pe-
rea, klasea ematera etorri dira bi astez be-
hin, Lautadako 4 ikastetxeetara.

Haurrek primeran pasa dute bertsoak egin
eta entzunez, euskaraz jolastuz eta bide
batez hainbat bertso emanaldi burutu di-
tuzte, azkena Maiatzaren 29ean egin zuten
denek batera Aguraingo Harresi aretoan.

GU ERE BERTSOLARI programa
"bertsolaritzaren curriculum" lanean
oinarritzen da eta lau eremu lantzen
ditu: **MUSIKA, KULTURA, HIZ-
KUNTZA** eta **TREBETASUN PERTSO-
NAL ETA SOZIALAK**.

IKASTETXEAK

Agurain: Lope de Larrea
ikastola eta Lautada ikastola

Araia: Araia Eskola

Dulantzi: Dulantzi Eskola

Gu ere bertsotan



Lautadako bertso familia ugaria

ZALDUONDOKO bertso-eskola

HAUR/GAZTETXO: Udaletxean.
Larunbatetan, 16:30-17:30(2 talde)

AGURAINGO bertso-eskola

GAZTEAK: Ostiraletan 16:00-
18:00astero.

HELDUAK Ostiraletan, 18:00etatik
20:00etara hamabostean behin. oharra
gurasoak seme alabekin batera joan dai-
tezke (3-7 urte)

HAURRAK: ostiraletan, 18:15-19:15.
8-12 urte bitartekoak.

ASPARRENGO bertso-eskola

GAZTEAK: Araiako gaztetxea, udako
bertso-eskola astelehenetan 19:00etan.

HAURRAK: 2013-2014 ikasturtean
ordutegia zehazteko.

1997an eman zituen lehen urratsak lau-
tadako bertso-eskolak Agurainen hain
zuzen ere, ez ziren izan errazak lehen
garai haiek baina azken urteotan haur
eta gazteen artean
bertsolaritza gero
eta jende gehiagok
ezagutzen du eta
zaletasuna gero eta
handiagoa da.



Gure eskualdeko guraso, gazte eta hau-
rren gogo eta ekimenari esker hasiera
horietako ametsa errealitate mardul
bihurtzen ari da, beraz eskerririk asko
bidelagun izan zaituztegun guztioi eta
datozen berriei **ONGI ETORRI** gure
bertso familiara!

Gabonetako bertso abentura BARRIAN

Azken urteotan ohikoa denez, 2013ko Urtarrilaren 2, 3 eta 4ean egin genuen Lautadako bertso barnetegia Barrian. 23 haur eta inguruko begiralerik martxosoenak elkartu ginen neguko oporren azken txanpa bertsoaren epeletan pasatzeko asmoz. Haurrek elkarrekin primeran pasa genuen, jolastu, kantatu eta barre egiteko tarterik ez zen falta izan. Bertsoak, musika eta jolasak tartekatuz 3 egun polit eta atsegin pasatzeko aukera izan genuen.

Hurrengorako badakizue...

**ANIMATU ETA ETORRI ZAITEZTE
BERTSO- ABENTURARA!!!**



Lautadako ikastetxeen topaketa Harresin Aretoan



Arabako lautadako ikastetxe guztietako 5. eta 6. mailako haurrek bertso-festa eskaini zuten Maiatzaren 29an, Aguraingo Harresi aretoan. Giro ederrean bertso ipuin, oporren aldarrikapen, bertso-hop, koplak umoretsu eta antzerki dotoreekin ikuskizun paregabea osatu zuten. Pastelari ginda jarri geniola esan zuen baten batek,

Zorionak emanaldiagatik eta urte osoan zehar eginiko lanagatik!!!

Lautadako bertso-eskolartekoa 2013

Maiatzaren 11an Zaduondoko Lazarraga jauregian izan genuen Arabako Lautadako bertso-eskolen eskolarteko topaketa eta festa eguna. Arratsaldeko 17:30etan Jauregiko ekitaldi areto dotorean Zalduondoko bertso-eskolako eta Aguraingo bertso-eskolako haurrek bertso sorta musikatua eta bat-bateko bertsoak eskaini zituzten entzuleen txalo beroen artean.

Txikien emanaldia amaitutakoan merienda goxoa eta talde argazkia atera zuten beratutako haur, gazte, heldu eta guraso guztiak elkarrekin. Ondoren gazteen bat-bateko kanporaketaren txanda izan zen. Arabako eskolarteko finalerako txartela eskuratu zuten txikien taldeak eta baita puntu gehien bildu zituzten bi gazteek ere: Egoitz Iradier zalduondoarrak eta Jon Unai Aspe aguraindarrak.



Bertsoak Lautadako bazter guztietan 2012-2013 ikasturtean

ARAIA:

2012-07-08 bertso poteoa eta bazkaria JAIK

2012-08-15 Artzain eguna. Bertso-saioa

2012-11-16 Bertxoko gazteen sariketa gaztetxean

DULANTZI

2012-11-30 Bertso tabern

2013-03-02 Arabako txapelketa ko finalerdia

ZALDUONDO:

2012-07-29 Zeledon jaia. Bertso-saioa

2013-05-11 Eskolarteko Txapelketa. Lautada

2013-06-09 Bertso erronda jaietan.

2013-06-22 Bertso bazkaria

BARRUNDIA

2012-12-01 euskararen eguna bertso afaria.

LARREA

DONEMILIAGA

2012-11-30 Bertsolarhitza umeentzako emanaldia. Uribarri-Jauregi

AGURAIN:

2012-07-13 bertso-kata Andramariko olbean

2012-10-09 Azoka eguna bertso saioa

2012-10-14 euskal jaia. Bertso-poteoa

2012-11-02 bertso tabern Herriko taberna

2012-11-29 AEK bertso saio didaktikoa

2013-02-01 Arabako txapelketa kanporaketa

2013-03-1 Bertso korrika Saioa

2013-03-09 bertso tabern Kilkeni taberna

2013-05-17 bertso-eskolen poteoa (Aramaio, Gasteiz eta Lautada)

2013-06-15, bertso-ring . 15 ordu euskaraz



Gure eskualdeko txoko gehienetara heldu da bertsolaritza ikasturte honetan, era askotako publikoarengana heldu da formatu ezberdinetako bertso saioak tarteko..

2012ko uztailetik gaur arte 21 emanaldi egon dira, lagun arteko saio, jaialdi, txapelketa eta sariketak.

Bizitza kulturean oso presente egon da bertsolaritza, udal, elkarte edo bertso-eskolaren eskutik.

ESKERRIK ASKO
GUZTIOI

LAUTADAKO BERTSOLARIAK UGARITZEN ARI DIRA!

Duela urte gutxi arte pentsaezina zen aurten txapelketa eta sariketatan izan dugun eskualdeko bertsolari uzta. Ondo ordezkaturata egon da gure eskualdea bai Arabako Bertsolari txapelketan, lehiaketa eta sariketan edo plazaz plaza egindako saioetan ere. Aguraingo Oier Arbina, Beñat Oribe eta Josu Campo, Zalduondoko Egoitz Iradier, Oier Suarez, Iker Pastor eta Jon Ruiz de Pinedo eta Bikuñako Oihane Pe-reak beren onena eman dute oholtza gainean. Iaz taldekako txapela lortu zuten eta aurten merezitako saria ekarri dute: ARABAKO TXAPELA. Horrela kantatu zuen Oihanek Printzipal antzokian:

*... Talderik gabe, bakarkakoak / ez du gehiegi axola
Bonbo soinuak ta zuek jartzen / didazue borborka odola
Hau ere bada zuena eta / Lautadako bertso-eskola!*

Orain bertsoetan plazaz plaza eta festarik festa gozatzeko tartea da, beraz, zuek ere adi egon zuen herriko jaietan hauetakoren bat topatzen baduzue txalo jo fuerte merezi dute eta!



Lautadako bertso-eskola
(Agurain eta Zalduondo)
Arramel kalea z/g 01200 AGURAIN
www.blogak.com/laube

Arabako Bertsozale Elkarte
Benito Perez Galdos, z/g- Amaia Zentroa
945 010505/ araba@bertsozale.com

www.blogak/laube

www.arababertsozale.org

www.bertsozale.com

www.bertsoa.com

